


BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua, Smart Helmet, errepidean lagunduko dizun kaskoa da. Bere ahots gida edo laguntzaileak, GPS bidez zure helmugarako biderik seguru eta motzenak esango dizkizu. Honetaz gain, musika ere erreproduzitu dezakezu. Mikrofono bat dauka barrukaldetik, eta honi musika jartzeko esan edo zure helmuga adierazteko. Belarri inguruan, audifonoak daude, musika eta ahots gida entzuteko. Honetaz gain, bluetooth konexiorako mikroprozesadoreak dauzka.



Smart Helmet-aren bidez, motoan zoazela, ez zara gehiago galduko ezagutzen ez dituzun herri edo hirietan, eta ez zara aspertuko bidaia luzeetan nahi duzun musika mota jartzen duzunean. Gainera, kaskoko sistema espezialarekin ez duzu hotzik pasako buruan edo istripu bat gertatzen bazaizu lokalizatzaileak larrialdi zerbitzuei abisatuko die. Horretaz gain, ez du kanpoko soinuen suspentsioa, beraz ez dio oztoporik egingo gidatzen ari denari, eta lasai gidatu ahal izango du.

Smart Helmet-a eskuratzeko, gure interneteko orrialdean eskuratzeko aukera duzu edota moto edo beste ibilgailu dendetan ere. Gainera, web-ean pertsonalizatu egin dezakezu kaskoa (kolorea, marrazkiak, ahots laguntzailearen ahotsa gustukoena duzun pertsonaia ospetsuarena jarri dezakezu).